

Kontzeju

www.oiñaci.eus



Berbia Oñaci



@BerbiaOñaci



koletina



Oñaci Irratib

Oñatiko Udal aldizkaria | 2019ko maiatze | 283



DELIK



UDAL AURREKONTUETAKO

500.000 €

zertan inbertitu herritarrek erabakiko dute, Udalak antolatu duen partaidetza prozesuaren bidez

Oñatiren aldeko lana eta eskuzabaltasuna eskertzeko OMENALDIA

Jerardo Elortzaren omenezko kultur astea antolatu du herritar talde batek, udalaren babesarekin

Ekainaren 1etik 9ra Jerardo Elortzaren omenezko kultur astea egingo da Oñatin. Euskaltzale eta historialari oñatiarrek herriaren alde egindako lan oparoa aitortu, eskertu eta ezagutzera ematea da omenaldiaren helburua.

Guraso eta arbasoengandik jasotako bizimodua, historia, ohiturak eta hizkuntzaren erroak ikertzen eta zabaltzen lan handia egin du Elortzak. “Jakituria handiko pertsona izateaz gain, umila, apala eta eskuzabala ere bada Jerardo. Eskatu dion edonori laguntzeko prest egon da beti eta, beraz, eskuzabaltasun hori eskertzeko ordua iritsi da. Herriari eman dion guztia eskertzeko garaia da”, adierazi zuen Kepa Elortzak, omenaldia prestatzen ari den taldeko ordezkariak.

Omenaldia Jerardo Elortzari eskainita egingo da, baina, aldi berean, 60-70 hamarkadetan euskal kultura lozorrotik atera eta berpizten ahalegindu ziren herritarrak ere gogoan izango dira kultur astean zehar.

UDALAREN BABESA

Herritar talde zabal bat ari da omenaldia prestatzen, baina udalak ere erabateko babes eman dio ekimenari. “Artxibo ibiltari bat da Jerardo. Udalak ere askotan jotzen du beregana kontsultak egitera. Herriko ondarearen eta euskal kultura-



Mikel Biain alkatea eta Kepa Elortza, antolatzailea, omenaldi ekitaldiaren berri ematen

ren alde izugarrizko lana egin du, eta ondo merezitako omenaldia da, zalantza barik” adierazi zuen Mikel Biain alkateak. Gainera, Jerardo Elortzaren izena eramango duen liburu bilduma bat eratzeko asmoa dutela ere aurreratu zuen alkateak, udalaren izenean. Jerardoren ezagutzatik abiatuta, herriko gaiei buruzko bilduma bat osatzea da asmoa.



BAZKARIRAKO TXARTELAK

Jerardo Elortzaren omenaldiko bazkarirako txartelak Txokolateixan egingo dira salgai ekainaren 7rarte. Etxe Aundi jatetxerako joan-etorria autobusez egin nahi dutenek txartelean agertzen den zenbakira deitu behar dute, **ekainaren 4a** baino lehen.



EGITARAUA

Ekainak 1-9: Jerardo Elortzari buruzko **erakusketa** kultur etxean (18:00-20:00).

Ekainak 4: Hitzaldia: ‘Jerardo Elortza egile’. Hizlaria: Juan Martin Elexpuru. Idoia Etxeberriak prestatu duen bideo-biografia ikusteko aukera egongo da, eta Pablo Anduaga agustiñuak ere hitz egingo du, euren komunitadiaren eta Jerardo Elortzaren arteko harremanen inguruan. Santa Ana antzokian, 19:00

Ekainak 6: Mahai-ingurua. ‘1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur bizitzaren berpizkundea, garaiko lekukoen esku-tik’. Jerardo Elortzarekin batera, Euxebi Osa (Ikastola), Carmenchu Balzategi (Oñatz alkartia) eta Juantxo Madariaga (Udal liburutegiko batzordea) ariko dira. Kultur etxean, 19:00

Ekainak 7: Filmen emanaldia. Jerardo Elortzak parte hartutako filmak (‘Gabon dut Anuntzio’, Liñugintza’, Aita Lasa, artzainen artzain’ eta ‘Lope de Agirre’) ikusgai, Agustin Goenagak eta Kepa Elortzak aurkeztuta. Kultur etxean, 19:00

Ekainak 9: Omenaldi ekitaldia. Santa Ana antzokian, 12:00. Ostein bazkaria Etxe Aundi jatetxean.

Ekainak 17: Ibilaldia Araotz-Urrusula artean (Sandaili, makinetxea...) Jerardo Elortza eta Imanol Biain gidari direla. Araozgo saloian, 08:30.